



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko uztailaren 2ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko uztailaren bian, arratseko zortzietan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, IRIART Jean Claude.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : LEKUMBERRY Xantxo.

Deialdiaren eguna : 2024ko ekainaren 28

Afitzatze eguna : 2024ko ekainaren 28

2. ERABAKIA: 2025eko ARTZAINZA HOBEKUNTZENTZAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA: KABALEN MENDIRAKO SARBIDEAREN SEGURTATZEA (9.1 nomenklatura)

Auzapezak artzaintza hobekuntzentzako bi proiektu aurkeztu ditu, hots ANTZARAMENDI bazkalekurako sarbidearen segurtatzea.

Auzapezak azaldu du proiektu horren aztertzeke, Euskal Herriko Laborantza Ganbarako artzaintza zerbitzuen eta herriko etxean laborantza eta bideen gaietaz arduratzen diren hautetsien artean gogoeta bat eraman dela.

Auzapezak, aipatu ekintzarentzat aurreikusten diren gastuak aurkeztu ditu:

-Euskal Herriko Laborantza Ganbararen aurrekontua txostenaren muntatzeko: **1 380 euro ZK**

-Frédéric DUTREY enpresaren aurrekontua aipatu lur sailen motoxehatzailearekin garbitzeko:
9 450 euro ZK

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

KONTUAN IZANIK, interesgarria dela herriko bazkaleku kolektibora kabalen eramaten segitzea,

KONTUAN IZANIK, horretarako artzainei lan baldintza onenak eskaini behar zaizkiela,

KONTUAN IZANIK, bi lur sailetan ikusi diren beharrak,

KONTUAN IZANIK, 10 830 euro ZK-ko aurrekontua (lanak + laguntza teknikoa),

KONTUAN IZANIK, honako finantzamendu plana:

- Finantzazio tasa: %80
- Dirulaguntza: 8 664 euro
- Autofinantzamendua: 2 166 euro

ONARTU DU, gorago aurkeztu den ekintzaren egitea,

EHLGko artzaintza zerbitzuari **AGINDU DIO** proiekturako laguntza teknikoa eskaintzea,

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari, ekintza horri buruzko agiri oro izenpetzeko eta behar diren izapiddeen egiteko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko uztailaren 2an,

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/07/05ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/07/05ean.